

M. Estonba



Miarritzeko itsaslabarrak. Argazkian ikus daitekeenez eraikuntzak itsaslabarraren azken muturrean ere eraiki dira.

Miarritzetik Getariaraino

Miarritzeko San Martin lurmuturretik Getariaraino goazela, Euskal Herriko itsaslabarrik gazteenak aurkituko ditugu. Neurri handi batean, kalkarenitaz osaturiko itsaslabar horiek Tertiarioko Miozenokoak dira.

Kostaldearen zati horretan eta bereziki Miarritze inguruan, higadura diferentziala oso nabarmena da eta horren ondorioz, kostaldea uharte, harkaitz, lurmutur eta hondartzez beterik agertzen da.

Aurrerago, Bidarteko itsaslabarreen, higadura uniformeagoa da eta horregatik, kosta-lerroa askoz zuzenagoa da.

Urradura-plataforma aztertzerakoan, azalera handirik ez duela eta gehienetan hareaz estalita agertzen dela ohartuko gara.

Ingurune fisikoan elementu deigarriak aurkitzen ez badugu ere, itsaslabarretako ekosistemaren egoera guztiz bestelakoa da. Bidarten bereziki, ekosistema horretako ordezkariak kontserbazio-egoera oso onean aurkitzen dira, nahiz eta itsaslabarretako goialdean gero eta urbanizazio-

Euskal Herriko kostaldea (X):

Lapurdikoko itsaslabarrak


Mikel Estonba Mintxero *

Sarritan aipatu izan dugunez, Atxurriren bokaletik Miarritzeko San Martin lurmuturraren itsaslabarretaraino, Euskal Herriko kostaldea Landetako kostalde hareatsuaren jarraipena da. Hemendik aurrera ordea, Lapurdiko kostaldea, Hego Euskal Herrikoaren modura, zenbait itsasadar estuez ebakitako itsaslabar harritsu eta makartsuez osatuta dago.

Horien guztien jatorria eta ezaggarriak oso antzekoak badira ere, itsaslabar horien artean zenbait alde desberdin bereiz daitezke. Horiexek dira hain zuzen ere, ondoren aztertuko diren aldeak.

Argazkian ikus daitekeen Ibarritz inguruko itsaslabarren kontserbazio-egoera oso ona da, ingurua urbanizazioaren meatxupean aurkitzen den arren.

M. Estonba



-prozesu handiagoak eman. La-purdiko kostalde osoan gertatzen ari da hori eta prozesu horren eraginik nabarmenena landa aerohalinoa zenbait lekutan desagertu izana eta besteetan miniora ekarri izana da. Zorionez, Bidarteko itsaslabarreko goialdean oraindik zabalera handiak daude. Nolanahi ere, egoera horrek noiz arte iraungo duen jakitea zailagoa da.

Bidarteko landen ondoan, Miarritzekoenen egoera guztiz bestelakoa da. Ez zen aurre-planifikaziorik egin herria urbanizatzekeo unean eta horren ondorioz, erakuntzak itsaslabarretako muturretaraino eramanez dira. Horrek arazo larria ekarri du Miarritzera eta jadanik, itsasoaren higadurak arriskuan jarri du herriko zenbait auzo.

Arazo puntual horri konponbidea emateko, hots, itsasoaren higadura oztopatzeko, itsaslabarrak hormigoiez bete dituzte eta horrek bertako ekosistema erabat suntsiarazi du.

Getariatik Hendaiaraino

Getariako itsaslabarrek, eta oro har hemendik Hendaiara bitartekoek, aztertutako berri ditugun itsaslabarrekiko alde handi samarra aurkezten dute. Herrien beraien adinari dagozkolarik, hauek aurrekoak baino zaharragoak dira. Goi Kretazeokoak hain zuzen. Horrez gain, itsaslabarren beraien egitura ere desberdina da, kararri eta margez osoturiko Flysch-egitura nagusia izanik.

Bi eragile nagusi horiei estratuen antolaketa ere gehitu zaie, hirurek batera eraginda, higadura-agenteen eragina handiagoa da kosta-zati honetan. Eragin horien ondorioz, urradura-plataforma zabalak, hondartza asko eta ia bertikalak diren itsaslabarrak daude ingurune horretan.

Elementu geomorfologikorik ikusgarrienak Donibane-Lohizu-

M. Estonba



Bidarteko itsaslabarrak. Bertan ikus daitezke Euskal Herriko landa aerohalino egituratuenetakoak eta zabalenetakoak.

M. Estonba



Maierkoenia hondartza. Urradura-plataforma handi baten gainean kokatuta dago hondartza zoragarri hau.

M. Estonba



Akotz hondartza. Hau ere, urradura-plataforma handi baten gainean dago.



M. Estomba



Loia badiako urradura-plataforma zabala.

M. Estomba



Abadiako inguruak eta itsaslabarrek osatzen dute Lapurdiko kostaldearen alderdirik ederrenetarikoa.

Argazkian ikus daitekeenez, olatuek etengabe erasotzen dute itsaslabarra.

M. Estomba



Espezie aloktono eta autoktonoen nahasketak baso tropikalaren itxura ematen dio Urkabe basoari.

M. Estomba



neko badia eta Hendaiaiko Santa Ana lurmuturra dira. Biak higadura diferentzialaren adibide garbiak dira, baina alde nabarmena dago bien artean. Donibane-Lohizuneko badiako materialak inguruko itsaslabarretakoak baino higagarriagoak diren bitartean, Santa Ana lurmuturrekoek higagarritasun txikia dute. Hori dela eta, Santa Ana inguruarekiko aurreratua geratzen da eta harkaitz, uharte eta antzeko elementu ugari ikus daitezke bertan (Dunbarriak, Loia, etab.).

Horrez landa, eskualde horretako Flych-egiturak arrosa kolorea du. Fenomeno horren azalpena sedimentuen oxidazio-maila altuan datza: seguraski, sendimenduak garraiatu ziren garaian klima epelagoa izateak, oxigeno-kanti-

tate handiagoak egoteak eragin zuten.

Ekologiari dagokionez, marearteko eta itsaslabarretako ekosistemen ordezkari garratzitsuak aurkitzen dira. Nolanahi ere, azken urteotako urbanizazio batiaren ondorioz, itsaslabarretako goialdeko azken muturrean ere eraiki da eta horrek bertako bizidun-komunitateak desagertarazi egin ditu. Fenomeno orokor horren salbuespenak Hendaiaiko Abaddia babesleku naturala eta Exanzabaleko itsaslabarrak dira. Bi inguru horiek "Conservatoire de l'espace littoral et des rivages lacustres" izeneko erakundeak kudeatzen ditu. Geologia-marko paregabean, ekosistema tipiko guztietako ordezkarien (Abadian gehien bat) iraupena ziurta-

tu dute. Alabaina, ez da hori eskualde horretatik hartu beharko genukeen irakaspen bakarra. Izan ere, ohizko nekazal- eta abeltzantza-ihardueren eta naturaren babesaren arteko oreka lor daitekeela baieztatzen dute eta horren adibide garbi bihurtu dira. Tamalez, isolatutako natura-uharte gisa geratzeko arrisku larrian daude alderdi eder horiek, ingurugiroarekiko sentikortasun-ezaz urbanizatutako eskualdeaz erabat inguratuta.

* Biologoa